

# Nafarkaria

• ostirala • 1997ko azaroaren 14a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Arribe.** • Euskualdeko gazte taldeen herri olinpiadak igandean.

**Montxo Goikoetxea.** • «Herejias vasco-navarras» Nafartasunaren aldeko defentsa.

## Artista gazte berriak

Iruñeko Artista Gazteak Lehiaketako hiru irabazleak euren lanak aurkeztu dituzte eta etorkizunaz mintzatu dira



Mikel Saiz, Eduardo Bobadilla  
eta Ana Casas Iruñeko Gotorlean.

• LUIS AZANZA

# • Arribe • Inguruko Gazte Asanbladen Olinpiadak

Leitza, Larraun eta Lizartzako gazteak bilduko dira bertan, Araizkoez gain

**Bihar, arratsaldeko 16:00etan, Arribeko enparantza gaztez beteko da seguruenik. Izan ere, hantxe ospatuko baitira, lehenengo, Herri arteko Gazte Olinpiadak.**



Herri Olinpiadetan egingo diren probetako bat lokotx edo sokor biltzea izango da.

MANU MUJICA

**H**ERRI KIROLAK, JOKO «KATXONDOAK», koxkol apustuak, zartagiekin jokaturako pilota partiduak... era guztietako probak egin beharko dituzte gazteek irabazle izan nahi badute.

Irabazten duenak ez du aparte-ko saririk izango, jaialdi hau antolatzeke gazteek ez baitute inongo dirulaguntzarik jaso. Beraz, diruaren eskasiak eragindako hutsuneak, askotan gertatzen den moduan, imajinarioak estali beharko ditu.

Dena den, partehartzaileak ez dira esku hutsik joango Arribetik. Proba guztiak bukatu eta gero, parte hartu duten guztiek afari-meriendatxo bat izango dute Arribeko Elorri elkartearen. Indarrak berreskuratzeko aukera paregabea. Eta ondoren, sabela ongi bete eta gero, ondoko herrira, Gaintzara joango dira gazteak, tropelean, hango festak baitira asteburu honetan. Ainhoa Iriartek dioenez, «arratsaldean ez badira

estutu, seguru gaupasan estutzen direla gure harremanak».

Partehartze handia espero dute antolatzaileek. Behintzat, lagun asko etorriko delako kontuak atera dituzte, eta horregatik hartu dute elkarte guztia beraientzat. Bertako Gazte Asanbladako kide gehienek behintzat hartuko omen dute parte.

## Araizko Gazte Asanblada

Olinpiada bitxi hauek antolatzeke ideia Araizko Gazte Asanbladarena izan zen. Ondoko herrietako Gazte Asanbladekin harreman handirik ez zutela eta, horrelako zerbait egin beharra zegoela ikusi zuten. Izan ere, bertako kidea den Ainhoa Iriartek

dioenez, «hori da olinpiada hauen helburu bakarra, gazteen arteko harremanak sendotzea eta elkarren arteko ezagutzea bultzatzea». Bide batez, noski, ahalik eta hobekien ibiltzen saiatuko dira.

Araizko G.A.k urtebeteko historia laburra baino ez du, eta sorreran olinpiaden helburu bera zuten: bailarako gazteak elkar-tzea. Gazte Asanblada baten funtzionamenduari buruz ez zuten ideia gehiegirik, eta Larraun edo Lizartzako adibidea jarraitu zuten. Horregatik, oraingoan, esker onez, gonbidapen hau egin nahi izan diete.

Haien asmoak aurrera egin ahal izateko, behar-beharrezkoa zuten egoitza egoki bat bilatzea.

Hori izan zen beraien lehen urratsa. Betelu eta Araizko udaletxetara jo zuten lokal baten eske. Lehenak, hasiera-hasieratik ezezkioa eman zien, eta bigarrenak baiezkoa. Dena den, oso lokal txikia da nonbait, eta ez omen dira bertan kabitzen.

Herri arteko Gazteen Olinpiada izan da Araizko Gazte Asanbladak antolatu duen ekitaldi garrantzitsua. Lehendik mendi irteerak, txalaparta ikastaroak... eta beste hainbat ekintza prestatu dituzte. «Denak ere guk finantzatuak», dio Ainhoa Iriartek. «Halere, norbaitek lagundu nahi baligu, gustura onartuko genuke laguntza hori».

→ Urko Aristi

Lizarra

•  
V. Aste Mikologikoa egingen da asteburuan

1993TIK EGITEN DEN BEZALA, Lizarra Ikastolak onddoen bilketa eta ezagutza helburu duen Aste Mikologikoa egiten ari da egunotan. Aurtengoarekin bosgarren ekitaldia betetzen dute eta jardunaldien ekintza aipagarriena bihar egingen da. Foruen Enparantzan ziza erakusketa zabalduko da. Bertan goizean zehar jatorri eta izate ezberdinetako hainbat perretxiko ikusi ahal izanen dira: barregorriak, gibel urdinak, onddo beltzak eta zuriak... Erakusketa, era berean, panel informatiboez lagundua egonen da. Haietan perretxikoen sailkapena jasoko dute, hala nola ziza bakoitzaren izen zientifikoa bai euskaraz eta bai erdaraz.

Urtero legez, egunotan ikastolako hainbat eta hainbat haur erruz biltzen ari dira zizak non-nahi. Izan ere, azken egunetako euri-jasak oso egokiak izan dira perretxikotan ibiltzeko. Los Llanos berdegunea abiapuntu izanik Urbasa, Lokiz eta Lizarra inguruko hainbat parajetan izanak dira Lizarra Ikastolako ume koskorak zein gazte-txoak. Hezkuntza zentroaren arduradunen hitzetan aste mikologikoaren xedea da, bertzeak bertze euskal kulturaren hain sustraituta dagoen zaletasuna ume eta gazte-txoek bereganatzea. «Ikasleei perretxikoen ezagutza eta bilketa jakinarazteko ere oso egokia da».

→ Kristina Berasain

## zubian barna

BINGEN AMADOZ



**G**oizaldeko hirurak ziren Alta Verapazeko putetxe galdu hartan. Puntako erritmoa belarritan, rona eta garagardoa ezartirik behera, giro alaitsua eta dantzagarria, irria ezpainetan. Begiek bame barnerraino sartu ziguten bapatean erreallitate krudela. Negar zotinkan, laisterkan sartu zen Antonio eta gure emagalduta babesle eta zinez bihotz oneko Gladysen besoetara bota zuen bere burua. Antonio, ile kizkurra, aurpegi borobiltxo, dardara batean zegoen, kontsolaezina.

Gau erdian esnatu, bere bakardadeaz ohartu eta amaren lantokira abiatu zen ziztu bizian, amatxoren ferekak nahi zituen, gureak arrotzak ziren eta bere eskutxo txikiekin errefusatzeko zituen. Angel, nire laguna eta biok, poza eta algara mozturik, segitu genuen hala ere, aingerutxo haren egonezina hitz goxoekin baretzen, amak magalean kulunkatzen zuen bitartean.

Gladysen esan zigun orduan ez zeukala multikoa

## Antonio

gauetz norekin uzterik eta batzuetan halakoak gertatzen zirela. Aitortu zigun ere Antonio ez zuela berak sortu. Bost urteko bere altxorra ez zen maitasunaren ondorioa. Hilabete batzuekin kalean utzi zuen, sekulan gehiago haren bila itzuli ez zen kupidagabe bezain zorigaitzoko izandako bere egiazko amak. Geroztik Gladysen semea zen. Orduantxe izerdirik gabeko kopeta eskuaren keinuz astintzen, emagalduta adierazi zigun asko kostata ari zela aintzineria ateratzen.

Janaria egunero lortzea horren zaila den herrialde hartan sabela ongi beterik egotearen seinale nabarmena izan ohi da gizentasuna. Gertu genituen arrisku guztien abertimenduak ematen zizkigun Gladys gure babesleak errepikatzen zuen horrexegatik behin eta berri: baietz pottolo dagoela, baietz pottolo dagoela. Martineren amak kilo erdi bat pezeta sartzen du etxean hilerio liberatan, baita maitale berri bat bere ekipaia osoa barne, bi hilabetetan behin. Gaztea da, enpresaria, diruduna, baina ez daki zer egin bere bizitzarekin

eta are gutxiago bere alabarekin. Martineren aita batetik bestera dabil goi mailako jendartean, gaur Parisen, bihar Madrilan edo Lisboan, gutxitan Bordelako bere etxean. Ez du astirik izaten, pasa den asteburuan zazpi urte bete dituen bere alabarekin solasteko ezta gogorik ere. Berarekin egotea dagokionean, asteburuetan, oporetan, Maria emazte berriaren kargu uzten du. Maria da hortaz aunitzetan Martineren ardura duena. Ama-ordea eta Martineren artean bada egun xamurtasunik.

Aitaxi-amaxiak etorri dira gaur etxera. Urrun bizi dira. Ez dute biloba sarritan ikusten. Zenbat handitu zara, esaten diote Martineri, opariak ekarri dizkiguzu. Haurrak ez die apreziorik erakusten. Aitaxik erantsi du: Aitaren antza handia ari zara hartzen. Martinek arrapostu egin dio tinko: Nik ez daukat aitaren antzik.

Orduan amarena izanen duzu, Aitaxik. Ezta ere, ni Mariaren familiako naiz eta beraz, bera bezalakoa, erantzun du garbi ta segur Martinek.



Iker

Ikerrek 25 urte ditu, eta guraso- en etxean bizi da, Donibane auzoan. Alta, aurki nobiarekin bizitzera joateko asmoa dauka. Dena dela, Ikerri ez zaio nobia hitza gustatzen, ez eta emazte- gai hitza ere. Neska-lagun esa- moldea ez zaio horren gorrota- garria iruditzen, baina gustuko duena, zuzenena iruditzen zaiona, lagun esamoldea da. Bikotekidea laguna da, lagun- tasuna baita maitasunaren oinarria, laguntasuna da-eta bikotekideen arteko lotura.

Nolanahi ere, lotura hitza ere ez du atsegin. Lanak, diruak, familiak, poliziak lotzen gaituz- te, eta berak lotura horiek guz- tiak hautsi nahi ditu, lotura horiek guztiak apurtzeko borrokatzen da. Horrenbestez, ez du inor lotu nahi, eta are gutxiago maite duena, laguna. Halaber, ez du maite duenak, lagunak, bera lotzerik nahi. Maitasunean ez dago loturen- tzako tokirik.

Ikerrek biziki maite du lagu- na. Neska eder, xarmant, kilika- garria da, eta, batez ere, lagu- na, lagun mina, lagunik minena. Gauza guztietan ados daude. Esate baterako, lagu- nak, Ikerrek bezala, maitasune- an loturentzako tokirik ez dagoela uste du. Hain justu hori dela kausa, lagunak larun- batean beste mutil batekin eman zuen gaua.

Ikerrek eta lagunak igande arratsaldea -igande arratsalde guztiak bezala- elkarrekin eman zuten, eta lagunak bez- peran gertatutakoa kontatu zion Ikerri. Ikerrek musua eman zion, eta «pozten naiz» esan zuen. Haatik, harrezkero Iker lur jota dago, leher eginda, zisko eginda. Jeloskortasunak erraiak erretzen dizkio, minean mina sentitzen du, eta beldur- tuta dago, ez baitakusa argi lagunak bere nobia izaten segi- tuko duenentz. Ordea, Ikerrek ezin dio lagunari, nobiari, ezer esan, ezin dio inori ezer esan; izan ere, nobiari, jende guztiari, behin eta berriz errepikatu dio maitasunean ez dagoela lotu- rentzako tokirik. Ikerrek, min- duta eta izututa ez ezik, lotuta ere sentitzen du bere burua. ●

# • Bera • Bertso saio nagusia asteburuan

Bidasoako bertso-paper lehiaketaren sari banaketa egingen da bihar, eta Euskal Herriko Txapelketako final-aurrekoa etzi

**B**ERTSOLARITZAK LEKU GA- rrantzitsua hartuko du asteburu honetan Beran. Larunbatean, Bidaso-ako bertso-paper lehiaketa sari banaketa eta Nafarroako bertsolari gazteekin egingen den saioa dira aurreikusitako ekitaldiak. Igandean, berriz, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalerdia ospatuko da Eztegar pilotalekuan.

1985ean antolatu zuen Berako Gure Txokoa Elkar- teak lehen aldiz Bidasoako bertso-paper lehiaketa. 1993ra arte urtero-urtero antolatu zen. Orduetik hona, bi urtetik behin antolatu da sariketa. Aurten, ordea, Bortzrietako bertso eskolarekin elkarlanean antolatu dute. Bertso eskolak udazken partean antolatzen zuen Bertso Astea, eta bertan ere egiten zen bertso-paper lehiaketa. Bi erakundeok elkartu. eta bertso-paper lehiaketa bakar bat pres- tatu dute, sari hobeekin.

Lau mailatan parte har deza- kete bertsozaleek lehiaketan. Horrela, haurrak ez ezik helduak ere bertsoak idazten jartzea du xede lehiaketak. Sari banaketa bihar egingen da lamoteneako egoitzan, arratsaldeko 19.00etan hasiko den ekitaldian. Aurretik, Nafarroako lau bertsolari gazte kantuan ariko dira. Bortzrietako Bertso Eskolak antolatuta, Esti- txu Fernandez, Oskar Estanga, Amets Arzallus eta Julen Zelaie-



Estitxu Fernandez, Xabier Silveira bertsolariarekin ez bada ere, bertsoan ariko da bihar Beran.

JOXE LACALLE

ta beratarra ariko dira kantuan. Iragan irailean Nafarroako bertsolari gazteek martxan jarritako ekimen baten parte da saioa. Herrialdeko bertsolari gazteek urtean zehar saio gutti egiten dituztela aintzat hartuz, eurek antolatuz, edo antolatzera bultza- tuz, hainbat saio egin nahi dira. Haietan lehendabizikoa da larun- batekoa.

Txapelketan aritutako bertso- lariak (Estitxu Fernandez eta Oskar Estanga) eta hasi bertzerik egin ez direnen arteko uztarketa izanen da (Amets Arzallus eta Julen Zelaieta).

**Txapelketa igandean**

Igandean jokatu da herrian Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako lehen finalerdia. Orain arte inoiz ez da jokatu Euskal Herriko txapelketako saiorik Beran.

Sei bertsolari bilduko dira Eztegar pilotalekuan 17:00eta- tik aitzinera. Mikel Taberna beratarra gai jartzaile dutela ari- ko dira kantuan Andoni Egaña egungo txapelduna, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Unai Iturriaga, Loidisaletxe eta Iñaki Zelaia.

Jon Abril

Fustiñana

Peñako Amabirginaren festak egunotan

URTERO LEGEZ, PEÑAKO AMA- birginaren omenezko fes- tak ospatuko dira Fustiña- nan asteburuan, hiriko festa txikitat jo daitezke- nak. Larunbatean, eguer- diko 12:00etan, festei ha- siera emanen dien altxa- fueroa iratxekiko da. Arra- tsaldeko 15:30etan, bertako La Peña eta Castejon taldeen arteko futbol parti- dua burutuko da, eta 20:00etan berriz, udal agintariak aterako dira plazatik, herriko musika bandak lagundurik, Peña- ko Andre Dena Mariaren omenezko Salbe egitera. Elizkizunak amaiturik, 21.30etan, festen ekitaldi- rik garrantzitsuenari eki- nen diote plazan: suak izlo- tzen dituzteno, 800 litro ar- do banatuko eta, Udaletxe- tik, 900 kilo intxaur jaurti- kiko dira. Ondorean su artifizialak botako dira.

Igande goizeko 9:00etan kalejira egingen da udal bandarekin, eta 11:30etan meza. 18:30etan ordea, gazteentzako zinea izanen da eta 20:00etan birgina- ren bidegurutzurrena egi- nen da. 21:30etan, larun- batean bezala, plazan suak piztuta, ardoak eta intxa- rrak banatuko ditu Uda- lak, segituan su artifizialak botatzeko. Astelehenean, Udalak auzokideen artean banatuko dituen 80 un- txien eta 1.000 kilo patate- kin herri bazkariak egingen dira, eta asteartean, azke- nik, haurrentzako bazka- riarekin eta zinemaldiare- kin amaituko dira festak.

Joxe Miel Bidador

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Udaletako lan poltsak

**Ttipi-ttapa** hamabostekariko azken aleak, beste hainbat gauzaren artean, udaletako lan poltsei eskaini dizkie erreportaia nagusi- ko orrialdeak. Langabezian dagoenarentzat nahitaezko baldintza izan ohi da INEMeko bulegoan izena ematea, lana topatu nahi ba- du behinik behin. Horrekin batera, batzuk lantegiz lantegi ibiltzen dira, lanerako prest daudela erranez. Berriki, lan esker daude- nentzat bertze aukera berri bat zabaldu da, momentuz, Bera, Baztan eta Lesakako Herri- ko Etxeetan: udal lan poltsak. Udaletxe hauetara joaten den teknikariak egiten du langabetuaren eta lantegiaren arteko bitarte-

kari lana». Itziar Urbiola da lan horretaz ar- duratzen dena.

«Lanbide Orientazio Zerbitzua udaberrian jarri zen martxan eta eskualdean bi bulego zabaldu zituen. Batetik, Leitzaidea, Sakana, Larraun eta Ultzama biltzen zituena eta Baz- tan-Bidasoa ingurukoa, bertzea. Baina man- tso samar zebilela ikusirik, bizkortzeko zer- bait egitea gogoratu zitzaion Itziar Urbiolari, Baztan-Bidasoako teknikariari. Hortik sortu ziren udal lan poltsak. Berako herriko Etxea izan zen aitzindaria, maiatza bukaerako udal batzarrean aho batez onartu baitzuen lan poltsa sortzea. Ondotik, ekaina hasieran

Baztan Balleko Etxean eta uztaila bukaeran Lesakako Herriko Etxean bertze horrenber- tze egin zuten». Itziar Urbiolak hauxe dio **Tti- pi-ttapako** orridaldeetan: «Udal lan poltsen bidez, Herriko Etxea enpleguaren sorreran tartean sartzen da eta, bertzetik, jendeari eta enpresari, honelako erakunde bat gibelean dagoela sumatuta, konfiantza edo segurtasun handiagoa ematen dio. Hala ere, hemen inguruan jendeak elkar ezagutzen du eta ahoz aho egiten dira lan harreman gehienak. Enpresek lan poltsara jotzen dutenean bertze moduek huts egin dietelakoz da, lan baldin- tzak onenak ez direnaren seinale».

# Gazteak eta sortzaiileak

Aurtengo Iruña Artista Gazteak Lehiaketako irabazleek ez dute euren burua artearen zurrunbiloan ikusten

**Ana Casas pinturan, Eduardo Bobadilla eskulturan eta Mikel Saiz argazkilaritzan izan dira XIII. Iruña Artista Gazteak Lehiaketako irabazleak. Ilusioz hartu dute saria. Sortzea oso gustoko duten arren, eta horretan jarraitzeko asmoa badute ere, ez dute uste etorkizuneko lanbide izanen dutenik.**

Iruñeko Udalak azken hamahiru urtetan antolatzen duen Iruña Artista Gazteak Lehiaketa egun herrialdeko artearen munduan lekutu diren askoren hasiera izan da. Dick Rekalde, Txaro Fontalba, Jose Javier Huarte, Mikel Urmeneta eta Itziar Alforjarentzat bere lanak ezagutzera emateko lehen isplua izan zen. Nolanahi ere, lehiaketako irabazleak artista gazteak ziren arren, Iruñeko erakusketetan gero eta nabariagoak ziren eta horrek ezezagunak zirenei bidea irekitzeko aukera kentzen zien. Hori dela eta, 1995ean adina jaisteia erabaki zen. Aldaketarekin partaidea kopurua eta kalitatea jaitسي bazen ere, epaimahaiaren iduriko, joan den astean ezagutu ziren irabazleen lanek maila polita dute eta aurreko urteetako maila berreskuratu dute. Hartutako bide berriari jarraituz, lehiaketak erabat ezezagunak ziren artista eta balore berriak ezagutzera eman ditu eta horren lekuko dira aurtengo hiru irabazleak. Mikel Saiz, Ana Casas edo Eduardo Bobadillaren lanak ezezagunak ziren orain arte, baina orain kazetariaren dezentziaz adina beta dute ozta-ozta.


**Ana Casas:**  
**«Etiketa aukeratu nuen emakumea etiketatua dagoelako pinturan. Arropa etiketak nahita aukeratu nituen, moda eta irudiari oso lotuak daudelako eta emakumearekin uztartzen direlako»**

ki muntaiak euren balio kreatzailea erakusteko aukera zabaldu die. Hiru ere parte hartu duten lehenengo lehiaketa dute eta emaitza ezin hobea izan da aurreko saria eraman dutelako. Hiru lanak lehiaketara aurkeztutako 101en artean aukeratu ziren, eta beste 59rekin batera Iruñeko Gotorlekuko Mixtos Artoetan jarriko dituzte datarren ostiralean, azaroak 21.

Hiru ere hausnartzen joan diren ideiak gauzatu dituzte saritutako lanetan eta hirurek lortutako emaitza aurretiaz pentsatua zutenaren isla dela diote. Eduardo Bobadilla, bere kabuz ikasia, espazioarekin jokatu du *Rizoma*-n. «Espazioarekin arazo bat dut eta hori konpontzen saiatu naiz». Duela hiru urte pintura batertuz hasi zen eskulturan. «Ideiak hiru dimentsiotan izaten hasi nintzenez», gogoratu du.

Neurri txikietan hiru milimetrotako makil finak itsatsiz eta alanbreak uztartuz hutsak agertzen diren formak egitura bihurtzea lortu du. «*Rizoma*-n ez dago argi zer adierazi nahi den, ikuspegi bakarria duelako. Lur azpian dagoen zainak dira, kaotikoak dira baina nik egitura ordenatuak egin ditut. Niretzat eskultura ez da hiru dimentsiotako objektua eta garrantzitsuena da espazioaren tratamendua. Materialen heterogeneotasuna eta barrokua erreklupatzen saiatu naiz.»

**Hiru kreazio lan**  
Etiketako koadroak, *Rizoma* eskulturarik eta *Erretratu animatuaren autoretraturia* argaz-



## Kalitate handikolak

Aurtengo Iruña Artista Gazteak Lehiaketara aurkeztutako lanak kalitate handikolak direla deliberatu zuen Javier Muro eskultoreak, Emilio Matute margolariak, Jorge Nagore argazkilariak, Jose Luis Mayor arte kritikariak eta galeristak, Javier Manzanos Iruñeko Udako kultura teknikariak eta Joaquín Pascal Ekinza Kulturalekako Zinegotziak osatutako epaimahaiak. 1995az geroztik aldaketa bat izan da lehiaketan. Lehiaketako irabazleak artista gazteak ziren arren, Iruñeko erakusketetan gero eta nabariagoak ziren eta adina jaisteia erabaki zen. Aldaketarekin partaidea kopurua jaitسي zeri eta ez hori baka-


rrik, kalitatea ere baretu egin zen. Javier Manzanos epaimahaikideak eta Iruñeko Udako Ekinza Kulturalekako arduradunaren arabera onurarik ere ekarri zuen. «Partehartzaileak eta kalitatea gutxitu bazen ere ekarri zuen onurarik. Lortu genuen erabat ezezagunak ziren artistak ateratzea eta talentu berriak ezagutzera eman genituen. Hori gertatu da azken urteotan».

Lehiaketak azken urteotan artista berrien lanak azalartzeaz gain izan du beste eboluziorik. Hasierako urteetan aurkezten zirenak oso Iruñean -Arte eta Lanbide Eskolan, tailerretan- edo bere kabuz ikasitakoak ziren. 90eko hamarkadan aldaketa

bat sumatzen da eta Arto Ederretako ikasleek eragin handiena da. Nolanahi ere, Manzanos enez, egun proposamenak gero eta gehiago eta ezberdinoak dira. «Aurtengo irabazlearen hizkera gutxiatik topatu ditugu. Aurkezten diren lanak gazteak direla dugu garrantzia. Artistak etiketak dakarrenak eta proiektuak egiten dituztenak dira. Otrak kalitatez egin behar du baina lehenengo proiektuak eta interesak onak aurkezten dira baina beste proiektuak jarraituz dituztenak. Bere burua oso interesa-

zten zaigu teknika eta lanaren aurkezpen egokia baino askoz gehiago interesatzen zaizkigu ideiak eta proposamenak. Ez dugu formatu handiko lanik topatu eta material noblekerik ere. Eskultore horrek eman dezakeena baloratzen dugu».

Jose Luis Mayor Pintzel Galeriarako arduradunaren ustez kalitatea oso ona izan da. «Partehartzaileek oso lan zainduak eta ongi eginak aurkeztu dituzte. Dena den, partaidetza ez da handia izan». Galerista baten ikuspegitik, artistok dituzten egonezina eta gogoetak islatzen dituztela dio Mayorrek. Joera jakin bat jarritu baino gehiago.



**Eduardo Bobadilla**  
**«Espazioarekin arazo bat dut eta hori konpontzen saiatzen naiz. Emaitza baino arago, sortze prozesua bera interesatzen zait»**



harrapatu nau» dio humoretsu. Argazki sariaren irabazleak ez zuen oso argi sarira aurkeztea eta autorretratuaren inguruko lan bat egin zuenez hura eraman zuen. Argazkigintza Bartzelonako Grisad eskolan ikasia egun Nafarroako egunkari batean aritzen da noizbehinka.

*Erretratu biziaren autoretraturia* lanarekin bere buruari egindako sei erretratu animazio eman die. «Enkuadreak berdinak dira seietan eta aldatzen dira argazki-zorroan dauden argazkiak». Autorretratuak gustuko ez izan arren «ez nuen ideia zehatzik eta egin nuen lana aurkeztu nuen. Niri batez ere argazki muntaiak egitea gustatzen zait».

**Etorkizuna: erakusketa prestatu**  
Hiru irabazleak gustatzen zaizkien arte lanak egiten jarraituko duten arren, eguneroko ogia beste zerbaitetan aurkitu beharko dutela diote argi eta garbi. Lehiaketako garalle izateagatik Udalak sariaren 220.000 pezeta (88.000 libera) emateaz gain, Gotorlekuan heldu den urtean erakusketa zabalitzeko aukera eskaintzen die. Aurrerantz buru belarri horretan hasiko dira. Mikelek argazki muntaiak egiteko asmoa du. «360 graduko argazkiak egin nahi ditut». Esaterako, taberna bat erretratatzen dudanean, tripodetan jarritan dute erdian eta tabernaren argazkia egin nahi dudanez gutzia erretratatzen dut, guztira 24 argazki egiten ditut eta haietatik bakoitzaren erdia aprobetxatuz bata bestearen ondoan itsastan ditut eta tabernaren ikuspegi subjektiboa ematen dut». Bestela, argazki-kazetari lanean aritzea gustatuko litzaiokoe aisialdian beste lan batzuk egiteko aukera izateko.

«Oraingoz nahiago dut prentsan aritu, asko maite dut, mugimendua dago, ikasteko eta oinarria hartzeko oso ona da eta beste gauzetarako beti baduzu denbora», gaineratu du.

Beste bi irabazleek etorkizuna saria baino lehenago ikusten dute. Erakusketa prestatzeko gogoia dute baina egunerokoa ahaztu gabe. «Badut toki bat nire lanak jartzeko eta salatutako behar dut ematen didaten espazioarekin lan egiten», dio eskultoreak.

**Mikel Saiz**  
**«Ez nuen ideia argirik, autoretratuaren inguruko lana egin behar nuen eta hala suertatu zen»**

Era berean, ez du honetan ez aritzeaz kezkatzen. «Prozesu sortzaileak dā interesatzen zaidana eta ez dut honetaz bizitzeko asmorik. Ez dut artearen ikuspegitik ikusten nire existentzia, gauza gehiago naiz ez naizelako artearekin adierazten».

Anak ere buruan erakusketa du. Harentzat «errotka handia da». «Lanean jarraitzeko modua da eta hasi dudana lanak gehiagorako eman dezake. Etiketak eta estandartuak egiten jarraituko dut, formatoak aldatuz joko gehiago eman dezakeelako. Formato handiagok lan egin dute».

Feminitatearen afera azaleratu eta gero irudiarekin jokatzeko gogoia omen du. Dena lerrota uztea, kalkulatu eta zehatza. Jari arte ez dakit zer gertatuko den baina horri heldu nahi niok».

Sortze lana amodioa eta gorrortoaren arteko mugan izaten da askotan, eta muga hori gaintzen saiatu dira hirurak. Sariak ez dira horretan hura hotz hartu ditu. Berriak dira herrialdeko arte giroan eta ez dute etorkizuna horretan ikusten. Are gutxiago erakundeetatik jasotzen duten laguntza eskasa aintzat hartzen bada. Ez dira erakundeen politika kritikazera sartzen. Ez dutelako interesik ere izan, baina erakusketa prestatzeko sariaren dirua ez dela nahikoa esan dute.



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemi Bidador

### Elbarrendik euskaraz, Erribera euskaldun! (II)

60. urteetako hamarkadan geratu ginen. Ordurako euskaltzain urgazle izendatua zen Garde jauna, 1964.az geroztik hain zuzen ere.



«**U**skaldunok euskaraz elerran behar dugu / Zomaiten ezpainetan, apeza, non sortu? / Neurk ere bere amaz eztu bear alketu / Ene hiri moitia zutut, Kargaztulu / Erriberan sorturik, korrengatik naparra / Beino zainetan daukat odol zübe-rotarra / Kanko artzaien moite Bardearen belarra / Ta kuek bihotzen sartu iparreko beharra».



956. — 7 fr.

Aurreko astean bukatu gabe laga genuen gaiari helduko diogu segituan, Marzelino Garde Villafranca Zarrazkazteluko semeak euskalgintzan egindako ekarpena zertan izan zen, eta bide-nabar, Nafarroako Erriberak Euskal Herriko proiektuan bere duen lekua aise ahanzten dutenei oiroitaraztearren. 60. urteetako hamarkadan geratu ginen. Ordurako euskaltzain urgazle izendatua zen Garde jauna, 1964.az geroztik hain zuzen ere, eta 1966. urtetik bederen, *Agur-en* eta *Príncipe de Viana* erakundearen aipatu euskarazko argitalpenean agertarazi zituen bere idazkiak. *Erronkari zazpirak* bat olerkia adibide: «Erronkari-ko zazpi hirier, bihotz guziareki: Zazpi hiri / -Mendi, saldo, lerdoi- / Erronkari / Zrei anaxi / Mintzoz, begitartez / Uskal hazi / Alkar betik! / Xinkoak egin ziona / Zeren autsi?... Aurrerdiak xoan / -Eskietarik artruk- / Karriketan / Zeurietan / Zazpi urzo hegalaz / Saldo batean / Txek bortian / Ardia barriartruk / Otsokan / Eder, andi / Kainbat egin bear / Erronkari?... Yi, goart adi / Zazpi anaxe zreila / Kortik asi / Zomat argi! / Zazpiak alkar artio / Ez indarririk».

1973.etik aurrera nafar

gubernauk ateratako paper horren zuzendari ihardun zuten, Erriberak bereganatu zuten agerpenarengatik nabarmen geratuko zena. 1974.eko martxoan jalgi zenbakiak azalean zekarkigun gai nagusiak, *Euskara eta txistua* izenekoak hain zuzen, hainbatetan larregi azpimarraturiko ideia folklorikoarekin batera -«Txistua ikasten, txistua jotzen, txistua zabaltzen dugula, gure barrenean gure izkuntzak dauzka oñarriak zuzpertzten eta indartzen ditugu. Txistua joaz, euskarak irabazten du», honako aipamen hau irakur dezakegu: «Nafarroako Erriberan, Bardenetako ertzean, Kargaztulu errian, Olibako monastegi zar zarra dugu. Atari nagusi gaitanean, Euskal Herriko txistulari zarrena». Ez gaitezen harri Gardék bere sorterriari eman zion izenaz, izan ere, egun hobetsia sobera ezagun baitzuen, 1976.eko agorrilaniko zenbakian aitortu zigunez: «Nondik atera ote dute Zarrazkaztelu itsusi hori? Erronkari-ko uskaldun artzai zaarrek beti Kargaztulu erraten zuten, orrela, obeki dagokio erromatarrek entzun eta idatzi zutenari».


1974.eko apirilean *Príncipe de Viana*koek karrikara atera zuten 100. zenbakiak Erribera beraxe zuten azalaren gai nagusi, Tuterako Ebro gaineko zubiaren argazkiarekin eta guzti: «Muskariako zubi luze

eder ori, ain mañagarria Erriberako seme geranontzat». Bertan zizkioenak ez ziren epelak ere: «Garai batean, or, euskeraz egiten zan. Naparroa len orobat euskalduna genuen. Azkeneko gizaldi auetan aldatu dituzte bazterrak. Ortzen dago toponimia. Lurraren millaka izenak euskaldunak dira. Naiz orko gizase- meak gure izkuntza ez mintzatu, landa ta soro oietan euskal toponimiak irau- du. Euskara eskatzen

badute, berea dan gauza bat eskuratu naian dabiliz. Euskara Nafarroako izkuntza da». Toponimiaz horren segurki baieztatzen zuena eztabaidagarri askoa agi badaiteke ere -hortaz, eta ditugun datuen arabera, eztabaida itxi bide du Mikel Belaskok, ikus bestenez *Merindad de Tudela* aldizkarian plazaratu zigun artikuluak-, ezin da uka Erribera eta euskara organ berari uztartzeko egindako saioa hagitzez aurrerakoiagoa dela egungo hamaika abertzalek Nafarroako hegoaldeaz dagiten ele aspertu hutsala baino, baita euskaltasunak eskatzen duenarekiko koherentzia sendoagoa erakutsi zuela gaurko hainbat euskal ideologok Euskal Herriko lurraldetasun kartografikoaren haruntzekikoa erakus dezakeena baino. Hortaz dudarik ez izan, alabade- re, lurra sekularenean ordezkatu ezin duen mapari garrantzi itzela ematen ohi baitzaio gurean, apika, ikur- ren azpitik dauden jendakiei baino handiagoa.

Ahitzeko, gogora ekar ditza- gun *Akullu suspergarri* izen- buruko olerkian lau haizeeta- ra Garde jaunak garraxi ixilez iragartzen ziguna: «Euskarak ezik / Ifungo izkuntzak ez du guretako / Ez indarririk / Ez eta ezirik ere». Martxelino Garde Villafranca, Erriberako olerkari euskalduna, 1990. ean hil zen.

Patziku Perurena



### Ehiztari beltza

**B**ADA EUSKALDUNON ahotan gizaldiz gizaldi zabaldur den leienda, nik neronek etxean askotan aditua: «Salumon apezak, meza matten ai zela, zakur saunkak aittu mezerdin ta, denak bertan utzita aldeñ men tzula, bere eskopeta artuta zakurran atzetik eizari segin. Geroztik herejen modun bizi men dela munduz mundu gordeka; ta trumoika asitzen dunen; ara! moittu ttuk Salumonen zakurrak!». Halatsu esanen dizu orañdik, Goizueta-ko xaharren batek edo bestek.

Ongi erreparatzen badiogu, apaizak beti, konsagrazio garaian ihes egiten du, hain juxtu mundutarron izpiritua kristautzeko unerik sagaratuenean. Beraz, sinbologia garbia du, juxtu une horretantxe meza eten eta apeza ihesi abiatzeak: *herejia*, *kristautasunari uko egitea*... Horrez gainera, apezaren zirikatzaile, *zakurren saunka* izanen da, zorigaitzerako deabruaren deia sinbolizatuz.

Horik guzik horrela, ordea, honatx nere galdea. Zergatik ageri dira euskal usarioan, *Ehiztari beltza*, *Mateo Txistu*, *Joaniko Txistularia*, *Salomon* judutarren errege, eta antzeko pertsonaiak? Uste dut badutela gure historia etnologiko ilunean beren leku kriptikoa: *juduak*, *moroak*, *jitoak*... Eta gai honen inguruan zerbait esatearren, esan dezaket, gure artean eraginik frango izandako arabiarrek ere, galera- zirik zutela sagarako orduan ehizan egitea.

Baina, hori aski ez, izenak eta izenondoak garrantzen dira euskal usario horretan. (*Juan, Juaniko, Pizti Juan*). Azkeneko hau, leienda berbera izendatzeko Donostia aldean erabiltzen omen dutena, eta Fausto Arozenaren ustez, kastillanozko *Preste Juan* sonatuaren euskal bihurtura baizik ez litzatekeena. Baina, prestea aparte, *Juan* izenak (edo *sainduak*), gurean hain ugarria denak, izan bide du halako debozio kriptiko zabal bat.

Eta *txistu* edo *txistulari* kontu

hori ere, Juan bezalaxe, halabehar hutsa ote da? Nik ez nuke hala denik esanen. Musikero herritarrak, alderraiak izan dira betidanik, eta elizako kontu sagaratueta gaizki ikusiak. Konparazio batera, inkisizio garaian gure alderdiotan epaitutako sorginik gehienak, bazuten zer ikustekorik zilibitu, firulin edo danbolinarekin, eta esan dezaket, beren izen deiturak bazituzten sorgin horiek. orohar jito kastakoak zirela, edo hobeki esan, orotariko jendaje kriptikoa.

Beste izenondoa *Beltza* dugu: gure artean parte gaiztoko guzia adierazten zuena, erlijio sinestearik hasi eta jende kasta bereiztuak sinalatzerainokoan. Nola-bait esan, *Ehiztari Beltza*, kristandadetik bazter gelditzen dena gure, edo sotana beltzaren azpian gordetako *hereje*, *moro*, *jito*, *judio* edo dena delako jendaje iluna.

Beste aldetik, ordea, presteak, fraileak, apezak eta antzekoak, itzal haundiko gizon diruditen arren egun, historian zehar, batez ere Trentoko Kontziliara arteinokoan, eta oraintsu arte ere bai gure herriska askotan, hagituz jendaje populatxeroak, makurrak eta ilunak izandu dira. Egin ere, sotanapean egin izandu baita azpilan eta hilketa ilun asko. Horregatik *«el hábito no hace al...»* delako hura ere. Eta horregatik, behar bada, leienda honetako apaizaren kontestua ere, joera beltz hain bildurgarri edo zuzengarri.

Baina, hori guzia aski ez, sinodoetan maiz ematen zaie apaizei eskopeta eta ehizakurra elizan ez sartzeko agindua, eta usario luze baten azken atzartatza, apaiz ehiztari amorratua izan zen Berastegiko Txomin apaiza datorrit burura.

Dena den, gurean ezezik, Europako beste lekuetan ere hagituz ezagunak dira leienda honen ahaidekoak: *Lo Mal Casador*, *Ehiztari Herratua*, *Ehiztari Basatia*, *Lakeden*, *Buttadeo*, *Asheverus*, *Judu Herratua*, eta antzeko izenekin.

### Ziria

• Motxorrosolo •

#### Non dago Aladino

**G**ANBARAK HAINBAT PRENTSA TITULAR EMAN DITU AZKEN URTEOTAN. Oraingo honetan Comptoseko ondorengo titularra dugu hizpide. Muñozen hautagaitza Alfredorekin lotu nahi izan da. Alkate ohiari ez zaio arrazoirik falta, betiere, Aladinoren parte hartzea ez da baztertu behar. Inoiz mesederen bat egina baitio Muñoz, prentsa handiko mesedea.

# Montxo Goikoetxea Kazetaria

## «Nazionalismo nafarra esnatu nahi dut»

Montxo Goikoetxea kazetari tuterarrak *Herejias vasco-navarras* liburua kaleratu du. 64 artikuluk eta 60 erronda jotak osatu dute lana. Kazetariak euskalduntasunaren aurrean nafartasuna aldarrikatzen du. Haren iritziz, «euskaro hitza da hobekien islatzen gaituena».

### soslaia

Montxo Goikoetxea 61 urteko kazetari tuterarra bere lehen artikulua idazten *Diario de Navarra* egunkarian hasi bazen ere, Parisko erbestetik bueltan eta Paris Irratian aritu eta gero, hoge

urte eman ditu prentsa abertzalean lanean; *Punto y Hora*, *Deia* eta *Egin-en*, hain zuzen ere.



Tumore bat dela eta azken urtea gaixorik izan den arren, gubxienez beste hamar-hamabost urte bizitzeko asmoa omen du. «Oraindik ere idazten jarraitu nahi dut, baina ez prentsan. Orain Arturo Kanpionen inguruan ikertu eta idatzi nahi dut».



Ezker Abertzaleko sektore batzuen dogma arbuatzen badu ere, ezkertiar eta abertzale izaten jarraitzen du. Idazteaz gain, Elkarri-rekin lanean dabil, euskal gaztazka konpontzeko eta atakaitik ateratzeko irtenbideak

eskaintzen dituen talde bakarra deritzolako.

■ Zer esanen zenioke liburua esku artean hartzen duen euskalduna sentitzen den nafar bati?

Euskalduna senti dadila eta bozka diezaiola bere ideiak islatzen dituenari. Nolanahi ere,

EAJren irakurketa Nafarroan deigarria da. Bada mende bat sortu zela, eta alderdi katolikoa izanik Nafarroako zonalde euskalduntan paktuak egin zitzaizkeen arren, deus gutxi lortu du. Joan den urteko Legegintzaldirako egindako hauteskundeetan 65 boto izatea hain da esanguratsua! Argi dago ildo hori ez dagokigula. EAJk beti esan du Nafarroak Euskadin sartu behar duela eta hori ez da bidezkoa. Bestalde, hemengo nabarristek beti ama Espainiaren gonetara zintzilika-tuak egon direnez, ez diote horri alternatibarik eskaini.

■ Eta espainiarra sentitzen den nafar bati?

Nik nazionalismo nafarra esnatu nahi dut. Espainia izan da Nafarroa inbaditu eta bereganatu duen bakarra. Euskaldunek ez dute bein ere Nafarroa bereganatu, ez eta Jesus Aizpunek eta Jaime Ignacio Del Burgok dioten Euskadik ere. Badirudi euskaldunak direla etsaiak, eta ez da hori. Niretzat euskaldunak anaiak dira eta guztiak gara euskarok.

■ Nazionalismo nafarrak hitz egitean, Arturo Kanpionen ideiak defenditu nahi dituzu?

Jakina! Eta duela mende bat baino gehiago sortu zen Nafarroako Euskara Elkartearen inguruko mugimendua. Kanpionek mila buelta ematen dizkio Sabino Aranari eta bide onetik zihoan. Hark esaten zuen Euskal Herria deitu behar zitzaioela, hori delako izen historikoa Leizarragak Biblia itzuli zuenez geroztik, 1571tik. Euskadi Sabino Aranak asmatu zuen Euskal Herria kentzeko eta EAJk inposatu du.

■ Zein litzateke nafartasun horren oinarria?

Liburuan argi diot: ez dute nafarrak EAEn sartu behar baizik eta alderantziz, etor daitezke gipuzkoarrak, arabarrak eta bizkaitarrak hona, eta Iparraldekoak aurreragorako utziko ditugu. Independenté eta euskal herrialde horiek guztiak bildu zituen euskal estatu bakarra Nafarroa izan da. Dena den, kontuz!, ez dut inor nahastu nahi, euskaro hitza da hobekien islatzen gaituena. Kanpionek esaten zuen hizkuntza dela batzen gaituena, eta ez Aranaren zortzi abizenak.

■ Presaka ateratako liburu honen ostean, baduzu beste-rik buruan?

Aurrerantzean, osasunak laguntzen badit behintzat, nire eginahalak idaztean erabiliko ditut. Prentsan ez, baina liburuak izkiriatu nahi ditut. Jadanik badut bat buruan eta nik deitzen dudana nazionalismo nafarra esnatzen saiatuko naiz. Hori gauzatzeko ezinbestekoa iruditzen zait Arturo Kanpionen inguruan idaztea eta aritzea. Horri eutsiko diot orain.

→ Irene Arrizurieta


IRUÑEKO KAFETEGI BATEAN PATXI Zabaletaren laguntzarekin aurkeztu zuen liburua Montxo Goikoetxeak. Agerraldia, liburuan egin moduan, jota batekin bukatu zuen, «taldeka kantatzen direnez ez dutelako gozakaizten».

■ *Herejias vasco-navarras* argitaratu duzu. Zer dakar libururak?

Horrela titulatu dut egun euskal-nafarrez mintzatzea abertzaleen artean heresia delako. Denok euskaldunak garela arautu da eta ez da horrela, gauza bat da euskalduna izatea eta bestea nafarra. Guztiok euskarok gara eta horregatik jarri diot izen hori. Liburuan defenditzen dudana da Nafarroak ez duela zertan Bascongadetan barneratu. Euskaldunak dira Nafarroara etorri behar dutenak, izan den euskal estatu bakarra Nafarroako Erresuma izan delako. Liburua nire testamentu politikoa da eta nire pentsakera politikoa laburtu dut. Nafarren gehiengoak ez du onartzen euskaldun izatearena, eta ez da arrazoi ideologiko, antropologiko edo etnografikoenatik, geografikoenatik baizik. Beti egon dira batetik Baskongadak eta bestetik Nafarroa, eta, azkenik, Frantziako Euskal Herria. EAEn badago euskaldun diren adostasuna baina Nafarroan ez. Gutxiengo bat euskaldun kontsideratzen gara eta gainontzekoek, lehenik eta behin, nafartzat dute euren burua, eta gero gehienek espainiarrak direla diote.

■ Beraz, zein da zure asmoa liburu argitaratzean?

Barruan dudana guztia atera nahi izan dut. Presa nuen esateko, eta modu egituratu batean esan nahi nuen, sakelari emateko liburu batean. Liburuarekin polemika eta eztabaida sortu nahi dut, eta ez arazoa estali. Nafarrez eta euskaldunetz mintzatzea arbuatzen dute, ez bakarrik ezker abertzaleak, baizik eta EAJk eta EAk, eta horri aurre egin behar zaio.



LUIS AZANZA

«Espainia izan da Nafarroa inbaditu eta bereganatu duen bakarra. Euskaldunek ez dute bein ere Nafarroa bereganatu. Badirudi euskaldunak direla etsaiak, eta ez da hori. Niretzat euskaldunak anaiak dira eta guztiak gara euskarok»

## BEKARIO!

## ZALDI ERDA



### Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

#### Tuñon 'hilda' ere, zakuak errotara?

**N**AFARROAKO HIRUGARRENA DA erakundeen sailkapenean eta buruari *Txit goren* tratamendua dagokio, orainsu arte Diputazio kontseilariari ez zegokiena. Foru Erkidegoaren errotze bidean bertze urrats bat izan zen. Aro berriaren hasmentan, deus gutxi egin zuen karlisten buruzagi izandakoak. Duela sei urtetik honat, ordea, jende aunitzen aho mihitan ibili da plazazatutako txostenak direla medio. Tuñon bozketa bitxi baten ondorioz iritsi zen kargura eta urte sail honetan zuzenean gobernatu du erakundea, eskuluz lekedatsuetatik bazter. Ganbarak legetan agintzen zaion lana bete du, eta hori, zoritxarrez, albiste da, joera nagusia bertzelakoa baita. Azpitik zenbat eta zolda handiagoa atera, zenbaitek hainbat eta tripako mina handiagoa izan du. Gure Erkidegoan denok behar dugu pasa haiek ezarritako mazelarria, eta orain erabaki dute Tuñonek egin zuela bere aldia. Alferrakoak erakutsitako zuzentasuna, lan bidezkoa, gehiegi zirikatatu du nonbait, eta ordea iritsi zaio.

Erran zahar batek dio «gu hilda ere zakuak errotara» joaten direla: hau da, bertze batzuek eramanen dituztela gariz betetako zakuak errotara, edo munduak, bizitzak, aintzineria segituko duela. Ez garaia ordezkazekin, alegia. Oraiko honetan, ordea, litekeena da bai zakuak errotara ailegatzea, baina eraman ondoren, pikor haustegian errotarriekin egin behar den ehoze lana egoki eginen al du Kontuen Ganbarako errotazain berriak? Baietz sei urteren buruan karguari eutsi.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Iruñita:** Eskualdeko Ixaka elkarte berriaren sorrera dela eta, aurkezpen kontzertu mundiala duzu bihar herriko kontzertu aretoan. **The Smugglers, Purr** eta **Bad f-Line** taldeek joko dute 23:30etatik aurrera.
- **Iruñea:** **Tedium** taldeak kontzertua eskainiko du gaur, 22:00etan Reverendos disko-tekian.
- **Iruñea:** **La Pamplonesak** kontzertu berezia eskainiko du, etzi, Carlos III aretoan, 12:30etan. Emanaldian Koldo Pastorren Eguzkilo eta Vicente Egarearen Sanfermin poema estreinatuko dira.

### ANTZERKIA

- **Atrarrabia:** *Baby boom en el paraiso* aurkeztuko du Pasadas las cuatro taldeak gaur, 20:00etan, Kultur Etxean.
- **Berriz:** Aurrean aipatu taldeak antzezlan bera taularatu du etzi, 19:00etan, Mendialde Eskolan. Bihar berriz, Azkona taldeak haur antzerkia eskainiko du Kultur Etxean, 12:00etan.

### ZINEMA

- **Iruñea:** Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Ikerketarako Eskolan *El Hombre elefante* eskainiko dute datorren ostegunean, hilak 20, 20:00etan.

### ERAKUSKETAK

- **Zangoza:** Mugarik Gabeko Medikuen erakusketak zabalik dago heldu den azaroaren 23ra arte, udaletxean.
- **Iruñea:** Patxi Idoateren lanak ikusteko aukera dago Lacava

tabernan, heldu den azaroaren 23ra arte.

### BESTELAKOAK

- **Doneztebe:** Azoka dela eta bertsolariak kantatuko dute gaur herriko plazan. Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikano ariko dira bertsoetan, 12:00etan.
- **Arribe:** Bertso afaria egingen da gaur 21:00etan Egaña eta Lizaso bertsolariekin.
- **Zangoza:** Herriko Kultur Etxeko adierazgarria litzetekeen ikurra aurkitzeko lehiaketa antolatu du kultura batzordeak. Lanak abenduaren 1a baino lehen igorri behar dira
- **Zangozako Udaleko Kultur Etxera.** Mediavilla kalea 20. 31400.
- **Iruñea:** Felipe IIaren Menduerrera dela eta, Nafar Ateneoak bi hitzaldi antolatu ditu. Lehena datorren ostegunean izanen da, Iruñeko Kutxak Armadaren Etorbidean duen egoitzan. Valentin Vazquez de Prada historialaria Felipe IIaz mintzatuko da. Ostiralean, hilak 21, Alfredo Floristan historialariak Felipe IIa eta Nafarroan monarkiaren berrezapena izanen du hizpide. Hitzaldiak 20:00etan izanen dira.
- **Iruñea:** Ikea kirol taldeak bizikleta ibilaldia antolatu du

Izko mendizerrara etzi. Partehartzaileak bi txandatan aterako dira, 9:00etan eta 10:00etan. Informazio gehiago 17-43-58 telefonoan.

► **Cascante:** Udalak VII Ziza Jardunaldiak antolatu ditu. Gaur 20:00etan Daniel Palacios mikologoak hitzaldia eskainiko du Jubilatuen Etxean, eta bihar, ordu berean, Francisco Serrano, Zangozako Ziza Elkarteko kidea mintzatuko da. Jardunaldiak igandean bukatuko dira, 11:30etatik aurrera Foruen Enparantzan zabalduko den ziza erakusketarekin. Ordu bat beranduago ziza eta ardo dastaketa izanen da.

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Gerrarako Ministerioa

Zuk patua jartzen duzu, eta guk laranja  
**HEROIA ALA HERIOA**



**ZOZKETA GUZTIEN AMA**

Loteria honetako sari nagusia beti auzo txiroetan tokatzen da